SERIEAREN KODEA	0191

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Aldi baterako egonaldirako eskaera, mendetasuna duten adinekoentzat edo desgaitasuna duten pertsonentzat	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk	Atsedena	
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Mendetasun-egoeran dauden adineko pertsonek eta desgaitasuna duten pertsonek behar dituzten zainketak bermatzeko aldi baterako egonaldirako eskaera, familiek eta zaintzen dituzten pertsonek atseden har dezaten eta zainketen jarraitutasuna zalantzan jar dezakeen edo zainketak birplanteatzea beharrezko egin dezakeen beste edozein egoerari aurre egiteko.	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Oiartzungo Udala Arloa: Gizarte Zerbitzuak Saila: Gizarte Zerbitzuak Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez:X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Erakundea	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako data	Amaierako data
Toki-administrazioa	Gizarte Zerbitzuak	1992	

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpenaren data
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
FD	72/2000	Besteren laguntza behar duten pertsonak etxean dituzten familientzako "Sendian" programari buruzkoa		GAO, 142. zk.	2000/07/18
FA	758/2002	Sendian programako zerbitzu eta prestazioen prezioak, baremo		GAO	2003/02/14

		ekonomikoak eta erabiltzaileen ekarpenak onartzen dituena, salbu eta bi arau horietan «atseden luzea» emateari buruz xedatutakoa, indarrean egongo baita baliabide hori emateko araubide berria onartzen ez den bitartean.			
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
FD	12/2015	Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonek egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen duena	2015/04/21	GAO, 82. zk.	2015/05/05

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa
2.1.7	Seriearen hasierako data	1992
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	Artxiboa, 34 espediente

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**
	- Instantzia edo eskabidea, eredu normalizatua. - Interesdunaren NANa - Borondatezko ordezkaritza bada, ordezkariaren NANa. - Eskatzailearen eta familia-unitateko kide guztien diru-sarreren egiaztagiria. - Txosten mediko eguneratua, diagnostikoa eta tratamenduak adierazten dituena. - Banku-kontuaren titulartasuna.
2.2.2	**Administrazio-prozedura**
	Aldi baterako egonaldien zerbitzuan sartzeko, bi administrazio-prozedura bereizi izapidetu beharko dira: 1. Egoitzetako aldi baterako egonaldien zerbitzuan onartzeko prozedura. 2. Egoitzan aldi baterako egonaldia eskatzeko prozedura. - Egoitzetako aldi baterako egonaldien zerbitzuan onartzeko prozedura Prozedura honen xedea da aldi baterako egonaldien zerbitzuan onartzeko eskaera arautzea, egoitza-zentro batean aldi baterako egonaldia eskatu ahal izateko. Foru-dekretu honetako 7. artikuluan aurreikusitako betekizun eta baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, eskatzaileak egonaldiak eskatu ahal izango ditu, aldi bakoitzean betekizun horiek egiaztatu gabe, betiere baldintza horiei eragiten dien funtsezko aldaketaren bat gertatu ez bada behintzat. Eskatzaileak edo legezko ordezkariak, edo borondatezko ordezkariak, edo izatezko zaintzaileak, halakorik izanez gero, eskatzailea erroldatua dagoen udalerriko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar du zerbitzuan onartua izateko eskaera. Eskaera horrekin batera, foru-dekretu honen II. Eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da,

xedapen honen 7. artikuluaren 4 apartatuan adierazitako salbuespenak aintzat hartuta.
Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuek eskaera Gizarte Politikako Departamentuari igorriko diote, beraiek egindako balorazio sozialarekin batera.
Eskabidea Gizarte Politikako Departamentuan jasotzean, eskatzailearen egoera aztertuko da, bere ikuspegi guztietatik, foru-dekretu honetan xedatutakoari jarraituz eta departamentu horrek ezarritako irizpide teknikoen arabera.
Irizpen teknikoa eman eta, bidezkoa denean, interesdunari entzuteko tramitea bete ondoren, kasuan kasuko ebazpen-proposamena igorriko zaio Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiari.
Aurreko apartatuan aipatutako ebazpen-proposamenaren argitan, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du, eta interesdunari jakinaraziko dio Gizarte Politikako Departamentuan eskaera jaso zenetik hasita hilabeteko epean, edo udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan jaso zenetik hasita bi hilabeteko epean. Jakinarazpen horretan, dagozkion errekurtsoak adieraziko dira. Baldin eta espedientea etenda egongo balitz eskatzaileari lepora dakiokeen arrazoiren batengatik, etendura hori ez da zenbatuko arestian aipatutako epe horren barruan.
Prozedurari ebazpen arrazoitua eman beharko zaio, honako alderdi hauek aintzat hartuta betiere:
a) Eskatzaileari aldi baterako egonaldi-zerbitzuaren erabiltzaile-izaera onartu edo, aitzitik, ukatu egin zaion adieraziko da, foru-dekretu honetako 6. artikuluan zehaztutako arrazoietan ezarritakoaren arabera zein egonaldi-mota dagokion finkatuz.
b) Izaera hori onartzea ebazten bada:
— Erabaki horren ondorioen hasiera-data adieraziko da, interesdunak aldi baterako egonaldien eta amaieraren eskaera zehatzak aurkeztu ahal izan ditzan.
— Zerbitzuaren prezio publikoa eta erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, hau da, egonaldi-egun bakoitzeko ordaindu beharreko diru-kopurua, adieraziko da, betiere mendekotasunari, desgaitasunari eta nahasmendu psikikoari arreta eskaintzeko zentroetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena erregulatzeko indarrean dagoen foru-araudiaren arabera.
c) Erabiltzaile-izaera ukatzea ebazten bada, ezespen horren arrazoia edo arrazoiak adieraziko dira.
Ebazpena eman eta hori jakinarazteko gehieneko epea –bi hilabete eskaera udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aurkeztu zenetik aurrera– bete arren ebazpen espresurik oraindik eman ez bada, aldi baterako egonaldi-zerbitzuan sartzeko eskaera ezetsitzat emango da, administrazioaren isiltasuna dela-eta.

- Egoitza-zentroan aldi baterako egonaldia eskatzeko prozedura

Behin aldi baterako egonaldi-zerbitzuan onartua izateko eskaera interesdunaren alde erabaki ondoren, aldi baterako egonaldi zehatza edo zehatzak arautzea da prozedura honen xedea, eskatzaileari aldi baterako egonaldi-zerbitzuaren erabiltzaile-izaera emanda.
Eskatzaileak, edo interesdunaren legezko edo borondatezko ordezkariak, edota izatezko zaintzaileak, halakorik izanez gero, eskatzailea erroldatua dagoen udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako erregistroan aurkeztuko du aldi baterako egonaldia egiteko eskaera.
Eskatzailea ez bada aldi baterako egonaldi-zerbitzuaren erabiltzaile gisa ageri, egonaldirako eskaera aldi baterako egonaldi-zerbitzuan onartzeko eskaerarekin batera aurkeztu ahal izango da. Nolanahi ere, tramitazioa etenda geratuko da harik eta zerbitzuan onartua izateko prozedura ebatzi arte.
c) Egonaldirako eskaerak banakakoak edo anizkoitzak izan daitezke, bizikidetza-unitate bakoitzeko gehienez ere 4 kide onartuz.
Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Gizarte Politikako Departamentuari bidalitako eskabide irmoak soilik onartuko dira tramitatzeko.

Eskabidea Gizarte Politikako Departamentuan jasotzean, eskatzailearen egoera aztertuko da, ikuspegi guztietatik (Sakontzen programa) aldi baterako egonaldi-zerbitzuaren erabiltzaile izateko exijitutako baldintza guztiak betetzen jarraitzen duela ziurtatzeko. Aldaketaren bat antzematen bada, ofizioz jardungo da, aldi baterako egonaldi-zerbitzuaren erabiltzailearen egoera berrikusteko; eta prozedura etenda geratuko da harik eta azterketa hori erabaki edo ebazten den arte.
Eskatzailearen egoera aztertu ondoren eta, hala egokituz gero, arestian deskribatutako itxaron-zerrenden irizpideak aplikatu ostean, eta plazen eskuragarritasuna ere kontuan hartuta, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du, betiere Gizarte Politikako Departamentuko

zerbitzu teknikoek dagokion irizpena eman ondoren.
Ebazpen hori honelakoa izan daiteke:
a) Egonaldia onartzekoa, baldin eta plazen eskuragarritasuna kontuan hartuta eta exijitutako betekizunak bete direla ikusita, eskatutako egonaldi zehatza egin badaiteke. Ebazpenean, erabiltzaileak eta, hala egokituz gero, laguntzaileak egin beharreko diru-ekarpena adieraziko da.
b) Egonaldia ukatzekoa, baldin eta eskatutako egonaldi zehatza ezin bada eman, plazarik ez dagoelako edota zerbitzuan exijitutako betekizunak bete ez direlako. Dena den, eskaera ukatzeko arrazoiak azaldu egin beharko dira beti.
c) Itxaron-zerrendan sartzekoa. Horrelakoetan, kasuan-kasuan egin beharreko diru-ekarpena zehaztuko da, bai erabiltzaileari dagokiona eta baita honen laguntzaileari dagokiona ere, halakorik izanez gero behintzat.

Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru-diputatuari.

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	Aurreko serieak	Ez
2.3.2	Beheragoko serieak	Ez
2.3.3	Lotutako serieak	-Desgaitasunaren balorazioa -Mendekotasunaren balorazioa
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	Ez

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Ez
3.2	Legezkoa/juridikoa	Ez
3.3	Zerga-alorrekoa	Ez
3.4	Informatiboa	Ez
3.5	Historikoa	Ez

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	
Guztiz ezabatzea	Bai, bulegoko artxiboan espedientea ixten denetik bost urtera. Espedienteak bizikidetza-unitateka ordenatuta badaude eta garbitzea erabakitzen bada, banakatu egin beharko dira, lehendabizi, serie horri dagozkion espedienteak.
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Bai, DPBLO
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	Dokumentu-serie honetan, Udalak onuradunaren eta Aldundiaren arteko bitartekari gisa esku hartzen du, izapidearekin lotutako dokumentazioa bidaltzeko eta sor daitezkeen aldaketak jakinarazteko, eta Aldundiaren eskumena da espedientea ebaztea. Udalean gordetzen diren dokumentuak jatorrizkoaren kopiak dira eta osatu gabe daude, ez baitute izapide osoa jasotzen.

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	Almudena Coronado Letellier (Ereiten SL)
Landa-lana egin den artxiboa/k	Oiartzungo Udal Artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	
Azterketaren data	2016/06/22
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	